



## BANAKETA-KANALAK

---

Bistakoa da zerbait egin ezean, bezeroek ez dutela gure makinaren berririk izango. Aurretik aipatu izan dugun bezala, gure asmoa udalek, jai batzordeek edo kirol taldeek makina alokatzea da. Haiek, aldi berean, jaietan eta bestelakoetan gure makina erabiliz, kontsumitzaileei helaraziko diete gure produktua. Baina, nola lortuko dugu gure makina udalak, jai batzordeak, etab, alokatzea? Gure makina alokatzea nahi dugun entitate horiei, makina beraren aurkezpen bat egingo diegu. Pentsatu dugu lehenbiziko aurkezpena Getxoko udalari egitea. Jai edo beste ekintzaren batean makina dohainik erabiltzeko aukera emango diogu, nolabaiteko fideltasuna lortzeko. Hortik aurrera ostera, makinak erabili nahi izango balutituzte, alokatu egin beharko lituzkete.

Gure enpresarekin zuzenki lotuta egongo den programa Reactivate + programa izango da. Programa honetaz baliaturik aurretik aipatutako akordioak gauzatuko dira gure helburuak betez.

Hurrengo pausoa zera izango litzateke, makina alokatu nahi diguten entitate horiei makina eramatea. Merkatu-segmentuaren atalean zehaztu dugun moduan, jaietan zentratuko gara bereziki, plastiko ugari erabiltzen baita bertan, gero birziklatzen ez dena. Bada, lehenik eta behin, Getxoko zein beste udalerrietako jaien programei erreparatuko diegu, makinak alokatzeko eskari posibleak noiz egingo dizkiguten jakiteko. Gero, makina alokatzeko eskari bat heltzen zaigunean, garraiolari bat arduratuko da makina gure biltegitik eskaria egin den lekuraino eramateaz, eta kontrako zentzuan, bertatik gure biltegiraino eramateaz ere.

→ <https://www.nuestrasfiestas.com/bizkaia-vizcaya/fiestas-en-getxo/>

---





REDIVIVUS MAKINA



REACTÍVATE +

Kolaboratzaileak



Akordioak gauzatzea dugu helburu entitate guzti hauen artean plastikoa kudeatzeko.

